

# SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

## 38. BILERA AKTA

**EGUNA: OTSAILAK 24, LARUNBATA**

**ORDUA: 9:30-11:00**

**TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ALASTA GELA**

### **BERTARATUAK**

GURE ARRANO ELKARTEA

OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA-TANTIRUMAIRU IKASTOLA

BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA

IRAIN GURASO ELKARTEA

GEROA BAI

IRAIN ESKOLA

MAIRU ANTZERKI TALDEA

SAN FERMIN JUBILATU ELKARTEA

TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA

S.C.R.D. BETI-GAZTE K.J.K.E.

LESAKAKO ABESBATZA

GILTZARRI ABESBATZA

MUSIKA ESKOLA

LESAKAKO SOINULARIAK

TXISTULARI TALDEA

LESAKAKO ROQUES ORGANOAREN LAGUNAK

EH BIDU TALDEA

### **AINTZINAKO AKTA ONARTZEA**

Onartzen da.

### **2024. DIRULAGUNTZAK**

Enekok aipatzen du eragile guztiekin bilerak egin direla eta esleipenaren zirriborroa egina dagoela.

Laburbilduta:

- |                                  |                            |
|----------------------------------|----------------------------|
| • <b>Dirulaguntzak 2024</b>      | <b>38.500 € (+6.500 €)</b> |
|                                  | Esleipena %68 (2023 %46)   |
| • <b>Udaleko kultura partida</b> | <b>55.000 €</b>            |
| o Emanaldiak                     | 38.500 €                   |
| o Zerbitzu Teknikoa              | 16.500 €                   |

### **BAKARRIZKETAK**

Antton Tellerian bakarrizketa berria egiteko intentzioa badago bino oraindik ez dituzte datak bidali.

Bertzalde Futbolistok edo Tu Tum Plaz ekartzeko eskintzak bidali dituzte.

Denen artean udazkena aldera (azaroan adibidez) Futbolistok ekartzea adosten da.

### **ANDRA MARI EGOITZAREKIN KOLABORAZIOA**

Eragileen emanaldiak Andra Mari Zaharren egoitzara eramatea proposatzen da. Sanferminetan ere kalejiretan egoitza kontutan hartzea proposatzen da, txarangari ere aipatuko zaio. Aunitz eskertzen dute hara eramatea eta baita ekimenetan parte hartzea, ahal den neurrian (Harriondoako emanaldietara bertakoak eraman bolondres taldearekin koordinatuz....eskolako eguberrietako jaialdian horrela egin zen eta izugarri eskertzen dute).

Plangintza proposamen bat eginen da eta helaraziko da.

### **UEMA-EITB**

UEMAren bidez EITBkin akordio bat lortu da, 3.000 biztanle baino guttiago dituzten herrietan Primeran plataformako edukiak eta Goazen eta Irabazi arteko lehendabiziko kapituloa eta azkenekoaren estreinaldia egiteko aukera dohainik.

Zinema taldekoekin bilduko da hau nola bideratu zehazteko.

### **2024KO SANFERMINAK**

Hurrengo egunetan antolaketarekin hasiko da.

### **TXOKOBIKO-BOZGORAGAILUA**

Dantzakoekin eta Martxelekin solastu ondoren ze motatako bozgoragailua erostea finkatu da. Hurrengo egunetan eskatuko da.

Hurrengo bilera martxoak 23.